

EROSKI-K 50.000 MASKARA EMAN DIZKIO DOAINIK PORTUGALETEKO ASPALDIKO FUNDAZIOARI

Portugalete, 2023ko martxoaren 17a.- Adinekoen fundazio bat da [Aspaldiko](#), eta [EROSKI](#)k 50.000 maskara inguru eman dizkio biztanleria sektore ahul hori zaintzeko; izan ere, osasuna babesteko eta kutsadurarik ez gertatzeko material horren premia handia zuten. Bizkaiko Caritasek sortua da fundazioa, eta haren egoitzara eraman dute materiala.

Aurpegiko maskara hori EROSKIren MO ehun markarekin eginda dago, eta geruza bat baino gehiago ditu; gainera, urari sartzea eragozten dion tratamendu bat du, eta horrekin bakterioak eta birusa neutraliza ditzake maskarekin kontaktuan jartzean.

"Oso eskertuta gaude EROSKIrekin, elkartasun erakustaldi hau dela medio. Dohaintza honek babes handia emango digu eguneroko lanerako, adingabeak ez daitezten kutsatu urte sasoi honetan", esan du Aspaldiko fundazioko gerenteak, Ladislao Arriolak.

"EROSKI eta proiektu hau osatzen dugun guztiok konturatzen gara kolektibo horren zaugarritasunaz, eta dohaintza honekin gure aletxoak jarri nahi izan diogu fundazioak daraman proiektu handiari", esan du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)